

# ARIZKUN, ERRATZU ETA DONEZTEBE





## ARIZKUNGO EGITARAUA



Giro ederra izan zuten joan den urtean herri kiroletan. UTZITAKOEA

### EKAINAK 19, ORTZIRALEA

**17:00etan** txupinazoa eta txopo goititzea, **ondotik** ezpata dantza. **20:00etan** Baztango jauziak eta mutil dantzak. **21:00etan** baztan zopak eta **01:00etan** Fifi eta Fefa DJ.

### EKAINAK 20, LARUNBATA

**10:00etan** diana herriko txistulariekin. **11:00etan** haurren pilota partidak Txarutaren eskutik. **12:00etan** erraldioak herrian barna. **16:00etan** zaldi ikuskizuna Lamiarrietan Ordoki Zalditegiaren eskutik. **18:00etan** dantzaldia Olgetan erromeriarekin. **20:00etan** mutil dantzak eta gaita. **22:00etan** Txapela Brava, **00:00etan** Olgetan erromeria eta **02:30ean** Txabas DJ. Afaltzeko bokatak izanen dira.



Plazan banderarekin dantzan. ONDIKOL

### EKAINAK 21, IGANDEA

**10:00etan** diana herriko txistulariekin. **10:30etik aitzinera** Enrique's party egun guzian. **14:00etan** haurren bazkaria eta **14:30ean** gazte bazkaria. **18:00etan** txokolate hartzea eta gazte jokoak. **21:00etan** mutil dantzak eta gaita. **22:30ean** pintxaldi irekia. Afaltzeko bokatak izanen dira.

### EKAINAK 23, ASTEARTEA

**10:00etan** diana herriko txistulariekin. **11:00etan** haurren krosa eta **12:00etan** mus *iñeizture*. **14:00etan** zikiroa eta mozorro lehiaketa. **17:00etan** Ondoezik elektrotxaranga herrian barna. **21:00etan** mutil dantzak. **Ilunabarrean** suak, ezkila jotzea, antzerkia eta dantza herrikoiak: zortzikoa, gaita eta larrain dantza. **23:30ean** Marikiki DJ. Afaltzeko bokatak izanen dira Metxaren eskutik.

### EKAINAK 24, ASTEAZKENA

**Argitzean** udako solstizioko diana herriko gaitero eta soinulariekin. **11:00etan** meza nagusia. **12:00etan** mutil dantzak, **ondotik** herriko luntxa. **17:00etan** herriko haurren dantzak. **19:00etan** patata tortilla lehiaketa eta **ondotik** merienda afaria. **21:00etan** txopo botatzea eta Gaixoa ni herrian barna.

**BAZTANDARRA KOOPERATIBA**

Tel. 948 453310 • baztandarrascoop@gmail.com  
Ordoki Auzoa - ARIZKUN

ongi pasa bestak!

TASKA

**DOLAETXEA**

T. 948 453 002 | ARIZKUN

**MUGARKI**  
KIROLA, ESPERIENTZIAK ETA TURISMO AKTIBOA

- ESKALADA
- INDARRA
- KROS HIIT
- STEP
- ZIKLO
- KARDIO FIT
- PILATES
- +65
- HAURDUNALDIA

622 90 30 55 | www.mugarki.com  
kaixo@mugarki.com | @mugarki  
Ordoki pol., ARIZKUN

**ind/auto**  
TAILERRAK

Mekanika  
Elektrizitatea  
Pneumatikoak  
Ibilgailuen salerosketa

ongi pasa bestak!

Ind. Ordoki · Arizkun (NA)  
T. 948 453 488 · M. 675 324 960

info@indauto.es



**Dutarimuno**  
Ekologikoki ekoiztutako arrotzeak

Dutaria baserria · ARIZKUN · 616 756 359



**BERRO BIDE** **FENOT**  
NEKAZARITZA ETA INDUSTRIA TRESNEN  
KONPONKETA, ALOKAIRU ETA SALMENTA

Ordoki industrial gunea - 31713 ARIZKUN  
Tel. 948 45 33 43 - administracion@berrobide.com



**MARMOLES SOULE**  
www.marmolessoule.com

LAPIDAK | PANTEOIAK  
HILERRIAK | ZAHARBERRITZEAK  
GARBIKETAK | HARRI ZIZELKATZEA

M. 688 605 182 | T. 948 453 444  
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com

WhatsApp Instagram Facebook Twitter



**FORJA ZAPATA**  
Industrias ANCAR s.l.

ONGI PASA BESTAK!

BURDINA FORJATUAN  
MOTA GUZTIETAKO LANAK.

Arizkun-Baztan · 948 45 30 55  
industriasancar@yahoo.es

## «Ez nuen sekula neure burua alkate moduan imajinatu, baina batzuetan pauso bat aitzinerat eman behar da»

AMAIA JAURENA ETULAIN ARIZKUNGO ALKATEA

R. Oskariz ARIZKUN

«Familiaz disfrutatzea, lagunekin egotea, herriko bizitza egitea eta inguruko tradizioak bizirik mantentzea gustatzen zaion arizkundarra». Halaxe definitu du bere burua Amaia Jaurenak, azken agintaldian Arizkungo alkatetzat hartu duenak. «Aitzineko alkateak, lau urteren ondotik, bere kargua uzteko nahia adierazi zuen. Ikusirik inor ez zela bere kargua hartzera animatzen, neure burua aurkeztea pentsatu nuen. Ez nuen sekula neure burua alkate moduan imajinatu, baina batzuetan pauso bat aitzinerat eman behar da».

«Herritarren eta udalaren arteko zubi lana egitea» da bere ardura nagusia, «hau da, herritarrek dituzten eskaera, iradokizun edota keax udalera bideratzea. Honez gain, ekintzak antolatu, auzolanak eta batzarrak deitu eta herritarren eguneroko beharrei erantzuten saiatzea. Lan isila da aunitzetan, baina herriak aitzinerat egiteko beharrezkoa».

Hala ere, aitortu du «ez dela beti erraza» herriaren izenean solastatzea, «batzuetan ardura da, eta jakina da ezin direla denak gustura utzi. Baina gure lana batez ere herritarrak aditzea, iritzi desberdinak errespetatzea eta denon onerako erabakiak hartzen saiatzea da. Horrek lana errazten du». Eta noski, lan taldea du gibeletik: «sei gara alkatetzat taldean eta erabakiak denon artean hartzen ditugu. Horrek aunitz la-saitzen nau. Herri baten ardurak ez du pertsona bakar baten bizkar gelditu behar. Ideiak partekatzen ditugu, eztabaidatzen ditugu eta elkar laguntzen dugu. Talde lana ezinbertzekoa da».

Herrian ikusten duen «beharrak handienetako bat» da haurrendako parkea: «Arizkun gaur egun ez dugu parkerik, eta orain eskolako patioa handitzeko aukera ailegatu



lax hartu zuen alkatetzat Jaurenak.

da. Gustatuko litzaiguke hurrek eta familiek elkartzeko eta gozatzeko gune atsegina bat izatea, eta hasiak gara horri buelta batzuk ematen».

### Suen esperoan

Besta «aunitz» gustatzen zaiola dio Jaurenak, «baina azken urteetan, haur ttikiekin, egiteko aukera gutti izan ditut...». Hala ere, «egun bereziak dira, batez ere San Juan bezperako suek, ezki joteak eta ondotik egiten den antzerkiak sortzen duten giroa». Baina momentu bat aukeratzekotan: «lehenbiziko eguneko baztan zopetan mahai inguruan sortzen den giroa. Lehenbiziko eguna izanik, herritarrok gogo handiarekin hartzen dugu otordua». Zer falta duten galdetzean, berriz, «ez dut inoiz horretan pentsatu» dio, «baina eskatzen jarriz gero, lehen izaten zen arratsaldetako dantzaldia. Belaunaldi ugari elkartzeko aukera ederra da, eta uste dut giro polita sortzen dela».

Azkenik, «herritarrei egun zoriontsuak opa dizkiet, elkarrekin gozatzeko eta momentu ederrak elkarbanatzeko aukera izan dezagun. Gora Arizkun eta besta on denei!».

## ERRATZUKO EGITARAUA

EKAINAK 26,  
ORTZIRALEA

**10:30etik** aitzinera puzgarriak eta **12:00etan** txupinazoa. **14:00etan** haurrendako bazkaria karpan. **16:00etan** ezkila jotzea eta itzulia herriko trikitilari eta pandero jotzaileekin. **17:00etan** Izpegiko XVII. igoera eta **ondotik** txokolate hartzea Goitiko bentan. **21:30ean** zopa herrikoiak plazan eta **ondotik** dantzaldia Beñatekin.

EKAINAK 27,  
LARUNBATA

**10:00etan** diana txistulariekin. **12:00etan** errotaren inaugurazioa eta **12:30ean** bertso poteoa tabernaz taberna Libe Goenaga eta Uxue Alkortarekin. **14:30ean** bazkari herrikoia kanpinean. **17:00etan** herri itzulia Elektrotxorongorekin. **21:00etan** mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **23:00etan** dantzaldia Iparlan Frantxixkorekin eta aldi berean kontzertuak: Manitu eta Mirotz, **ondotik** Fresa Morango DJak.

EKAINAK 28,  
IGANDEA

**10:00etan** diana txistulariekin eta Erratzuko pilotari gaztetxoaren arteko partidak Gorostapolon. **11:30ean** pilota partidak Gorostapolon. **14:30ean** ziklo jatea, **ondotik** dantzaldia Fidelekin. **21:00etan** mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **20:30ean** LGTBIQ+ Harrotasunaren aldeko kontzentrazioa. **22:30ean** gaualdia Bada Giro taldearekin, **ondotik** Infernu DJ.

EKAINAK 29,  
ASTELEHENA

**10:00etan** diana herriko gaiteroekin. **11:00etan** meza nagusia. **12:00etan** herriko dantzari ttipien emanaldia izanen da plazan eta **ondotik** mutil dantzak eta luntx herrikoia. **16:30ean** mus txapelketa. **20:00etan** Destino Sonora mariatxien emanaldia, eta mojitoak ere izanen dira. **21:30ean** mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **22:30ean** pintxaldi irekia.



Eguraldi ezin hobea izan zuten joan den urtean Izpegiko igoeran. UTZITAKOIA



658 81 73 14 | 948 45 34 71 ERRATZU

## SERRERIA ALEMAN S.L



Teilaturako estrukturalak  
Tarimak · KVH  
Laminatuak · Egur trinkoa  
Tratamenduak

Frantziako errep. 2-A ERRATZU  
T. 948 453 173 | serreriaaleman@gmail.com

SANTXOTENA  
Eraikuntzak

Ongi pasa bestak!

Erratzu | 608 979 809 | santxotenasl@gmail.com




31714 ERRATZU  
948.453.065 - 656.933.760  
www.kastonea.com - info@kastonea.com

ALBANTZENA  
OSTATUA-DENDA

Ongi pasa herriko bestak!

Albantzena etxea, ERRATZU · Tel: 948 453 112



Kafetegia  
**GOROSTI**  
Okindegia  
T. 948 453 491

Ongi Pasa  
bestak!

Bestetan egunero irekia  
06:00etatik 00:00etara

Bazkariak eta afariak



Auto, furgoneta, 4x4 eta kamioien konponketa,  
mantentze-lanak, mekanika, elektrizitate  
eta pneumatikoen salmenta.  
2. eskuko kotxeen salmenta.

Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN  
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847  
bantzangoiza@yahoo.es  
www.bantzangoizataillerrak.com



**Doneztebe autoeskola**

**ONGI PASA BESTAK!**

Leitzako errepidea, 2 | DONEZTEBE  
doneztebeautoeskola@gmail.com



ordua eskatu

**MAITE**  
ileapaindegia

GIZON ETA EMAKUMEENDAKO

Mourges Etorbidea, 4  
948 451 780 - DONEZTEBE



**TALLERES ELIZGOYEN**  
Autoen eta lur orotako ibilgailuen konponketak

**ONGI PASA BESTAK!**

Mekanika azkarra  
Multimarka diagnosis  
Injekzioa  
Gasolioa  
Direkzioa  
Balaztak eta ABS  
Elektronika  
Aire girotua  
IAT aurreko azterketa  
Esekidura  
Txapa eta pintura

MULTIMARKA TAILERRA

Leitzako bidea, 78 - Doneztebe | 948450158  
elizgoyen@telefonica.net



**LOREA**  
NUTRIZIO ETA DIETETIKA  
www.loreanutrizioa.com

Zure ongi izatearekin konprometituta

loreanutrizioa kimetzelardenda  
Tel. 948 451 473

**KIMETZ**  
Belardenda  
www.kimetzbelardenda.com

ONGI PASA BESTAK !!



## DONEZTEBEKO EGITARUA

### EKAINAK 26, ORTZIRALEA

**20:00etan** txupinazoa, **ondotik** kalejira Doneztebeko bistulariekin eta Elutxa txarangarekin eta **ondotik** zopak herriko elkarte eta ostatueta. **22:15ean** suzko zezena Bear Zanan. **00:00etan** Lisker Santa Luzia plazan.

### EKAINAK 27, LARUNBATA

**09:30ean** diana gaiteroekin. **10:00etan** aurorak herrian barna. **11:00etan** erraldoien topaketa. **17:30ean** aurorak kalejiran Elutxa txarangarekin eta buruhandiak, aldi berean Udaberriko Erremonte Txapelketa Profesionalaren finala Ezkurra pilotalekuan. **20:00etan** Trikidantz Santa Luzia plazan. **22:30ean** Su ta Gar eskolako zelaian, aitzinetik eta **ondotik** J&J DJ. **01:00etan** J&J DJ Santa Luzia plazan.

### EKAINAK 28, IGANDEA

**09:30ean** diana gaiteroekin. **10:00etan** plater tiroa Bordablankan. **11:00etan** ongi etorria eginen diote Udal Ttikari eta haurren txupinazoa. **11:30ean** kalejira erraldoi eta buruhandiekin herrian barna eta Dantzari Ttikien ikuskizuna Bear Zanan, **ondotik** luntxa dantzariantzat. **12:00etan** bertso saioa Santa Luzia plazan: Maialen Lujanbio, Xabat Illarregi eta Joanes Illarregi. **13:00etan** batukada herrian barna. **14:00etan** Udal Ttikiko haurren bazkaria eta gazte bazkaria Santa Luzia plazan, Burrunbak antolatua. **16:00etan** puzgarriak Bear Zanan. **18:00etan** Züttik eletrotxaranga herrian barna, eta aldi berean Emakume Master Cup San Fermin pilota tomoearren finalaurrea Ezkurra pilotalekuan. **20:00etan** A Toda Madre Santa Luzia plazan. **22:15ean** suzko zezena Bear Zanan. **00:00etan** Biziraun Santa Luzia plazan.



Erreka eskubaloia eta Doneztebe futbol taldeek piztu zuten iaz suzuria. ALICIA DEL CASTILLO

**asegi asesorias**  
Zergalan

www.zergalan.es  
zergalan@asegi.es  
www.asegi.com

Kontabilitate zerbitzuak | Zerbitzu fiskalak | Lan-aholkularitza  
Aholkularitza juridikoa | Herentzia eta Testamentuak  
Datuen babesa | Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua  
Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

**ELIZONDO**  
Baztanberri pl., 6 - 31700  
T. 948 581 300  
F. 948 580 648

**BERA**  
Eztegara, 22 - 31780  
T. 948 631 108

**DONEZTEBE**  
Eliza Kalea, 22 - 31740  
T. 948 450 395  
F. 948 451 304

**LESAKA**  
Eltzeta, 3 - 31770  
T. 948 638 077



Dantzari ttikien emanaldia. A. DEL CASTILLO



Txistulariak San Pedro egunean. A. DEL CASTILLO

## EKAINAK 29, ASTELEHENÄ

**09:30ean** diana gaiteroekin. **11:00etan** meza nagusia, Agur Doneztebe, trapatán eta bandera dantza eta erraldoi eta buruhandiak. **Ondotik** luntxa herriko etxeko atarian Roberto mexikarrarekin. **17:00etan** haurrentzako jokoak Intzakardin. **18:30ean** aizkora apustua Bear Zanan: Vicente, Larrañaga eta Txikia, eta Estefania Etxebeste harria altxatzen. **20:00etan** Chuchin Ibañez Santa Luzia plazan. **22:00etan** Erreka Dantza Taldearen emanaldia Bear Zanan. **00:30ean** Trikiteens Santa Luzia plazan.

## EKAINAK 30, ASTEARTEA

**09:30ean** diana gaiteroekin. **10:30ean** mus txapelketa eginen dute elizako atarian eta **11:00etan** erraldoi eta buruhandien irteera. **12:00etatik aitzinera** Elutxa txaranga herrian barna ibiliko da. **14:00etan** herri bazkaria Intzakardin Euskal Parrillarekin, **ondotik** Xaibor. **16:00etan** puzgarriak Intzakardin, **ondotik** bestetako zozketa berezia eta erreka igoera. **20:00etan** Joselu Anaiak Santa Luzia plazan. **22:15ean** suzko zezena Bear Zanan, **ondotik** Gaixoa Ni udaletxeko atarian.



ONGI PASA DONEZTEBEKO BESTETAN!!



PINTXOAK ETA ETXEKO GOZOAK

Leitzako bidea, 6 | DONEZTEBE **ONGI PASA BESTAK!** 948 061 191

**Everlasting Bond**  
TRATAMENDU  
**ESKLUSIBO BERRIA!**  
+Kolare eta mozketak diseinuat  
+Orrazkera bereziak

**LILURA ILE APAINDEGIA** Orduategia:  
688 685 705 Astelehenetik larunbatara  
lilurailleapaindegia.com 9:30-13:30  
Rosa Seminario 17, + asteazkena: 16:30-18:30  
Doneztebe Txandarekin!



# GarmendiTX

powered by PinkmanBikes



**Bizikleta mekanikari profesionalak, salmenta eta alokairua**

[www.garmenditx.com](http://www.garmenditx.com)



Rosa Seminario, 13 | DONEZTEBE  
**660 05 54 94**



ONGI PASA  
BESTAK!

**lanbro**  
ALBAITARITZA



- | ALBAITARITZA
- | FARMAZIA
- | ILE APAINDEGIA

948 450 591  
lanbroalbaitaritza@gmail.com  
Rosa Seminario 15. behea **Doneztebe** 31740

*ongi pasa bestak!*

**GAZUME  
JATETXEA**

*Tradizioa, etxean  
egindako janaria*

**EGUNEKO MENUA  
KARTA  
OSPAKIZUNAK**

MERKATU BIDEA, 8 | **DONEZTEBE**  
T. **848 680 888**



## «Hogeita hamar erraldoi baino gehiagok parte hartuko dute ekainaren 27ko topaketan»

**BORJA ITURRIA TARAZONA** DONEZTEBEKO ERRALDOIEN KONPARTSAKO KIDEA



Konpartsako kideetako batzuk iaz San Pedro Egunean. ARGAZKIAK: UTZITAKOAK

### **Eneritz Iraola** DONEZTEBE

Doneztebeko erraldoien konpartsak 70. urteurrena bete du aurten. Erraldoien gonapean, erdi ezkutuan, ibiltzera ohituak daudenek begirada guztiak beraiengan jarriak izanen dituzte ekainaren 26an. Doneztebeko Herriko Etxeko balkoira igo eta beraiek izanen dute bestei hasmenta emateko ardura.

Taldeko kide berrienetakoa da Borja Iturria Tarazona, Donezteben bizi den arantzarra: «pasa den urtetik

naiz erraldoien konpartsako kidea eta ohore handia da herriko bestei hasiera ematea». Udalaren erabakia «emozio handiz» hartu dutela dio, «badira herrian erraldoien konpartsa bezain bertze meritu egin dituzten bertze pertsona eta taldeak. Polita da udalak gu aukeratu izana».

### **Historia**

Erraldoien konpartsan hasiberria den arren, etxeko lanak egin ditu Iturriak eta ongi ezagutzen du bere

**ONGI PASA  
HERRIKO BESTAK!!**



**Juanotena Zurgina**  
**Juantxo Juanotena**

639 855 120 | juanotenazurgina@gmail.com | Doneztebe

historia: «Doneztebeko erraldoiak 1956. urtekoak dira. Orduko udalak esfortzu ekonomiko handia egin zuen eta bi erraldoi erosi zituen, besta giroa alaitu eta umeez disfrutatzeneko helburuarekin». Xehetasun gehiago ere eman ditu: «Bartzelonako El Ingenio enpresari erosi zitzaizkion, 4.500 pezetaren truke». Oraingo erraldoiekin alderatuta, garai bateko materialak desberdinak zirela azaldu du: «lehenengo esku eta buruak kartoi mehez eginda zeuden eta gorputzak esponja eta zumezkoak ziren».

Erraldoiak ez dira izan urte haue-  
tan aldaketak jasan izan dituzten  
bakarrak. Konpartsaren egituraren ere  
aldaketa aunitz izan dira: «Hasiera  
hartan eta urte dezentetan, herriko  
boluntarioek eramaten zituzten erral-  
doi hauek herriko bestetan. Konpar-  
tsaren hasiera urtea bezala izendatu  
dugu 1956a, nahiz eta ez zuten ofi-  
zialki konpartsarik sortu». Ondorengo  
urteetan ere denetarik izan zuten:  
«Urte txarrak izan ziren, inork ez  
zituen erraldoiak zaindu eta ia de-  
segin ere egin ziren, baina 1988. ur-

tean, berriro ere udala tartean ze-  
goelarik, erraldoiak berregiteko  
ahalegina egin zen». Horrek ez du  
erran nahi gorabehera gehiago izan  
ez zenik: «Erraldoiak eraldatu arren,  
berriro ere urte txarrak etorri ziren,  
eta 2008an, konpartsa bezala ezagutzen  
duguna sortu zen. Herriko lau per-  
sonak osatu zuten, eta beraiek izan  
ziren San Pedro Egunean erraldoiak  
karrikara ateratzeko ardura hartu  
zutenak. Talde horrek, ordea, ez zuen  
jarraipenik izan, konpartsa desegin  
egin zen eta Ostiz familiaren zain-  
tzapean gelditu ziren herriko bi  
erraldoiak eta hauek plazaratzeko  
ardura».

**Aro berri bat**

2021. urtean aro berri bati eman  
zieten hasmenta: «orduan sortu  
zuten gaur egun ezagutzen dugun  
konpartsa eta konpartsako kideen  
eta udalaren bultzadarekin 2023an  
eta Gigantes Plateroren laguntzarekin,  
erraldoien buruak mantendu eta  
gorputz eta arropak berritu ziren». Itxura  
berrituta, izena ere eman  
zieten erraldoiei: «Peio eta Luzia.

**EROSKI city**  
ENKARGUAK HARTZEN DIRA  
Ongi pasa bestak!!  
T. 948 456 152  
Zazpigerutze, 8 · DONEZTEBE  
JANARI-DENDA | HARATEGIA | FRUTAK



**Maito moda**




Ongi pasa bestak!!

· Emakume eta gizonentzako arropa eta osagarriak ·  
 @ maito.moda | Maite Moda | 948 450 727  
 Ameztieta zeharkarrika, 5 DONEZTEBE



**Besta zorientsuak opa dizkizuegu!**

**IRURITA  
RUBIO**  
HORTZ KLINIKA

Odontopediatria | Irribarrearen diseinu digitala | Hortzetako estetika  
 Hortz-zuritze | Ortodontzia konbentzionala | Inplanteak  
 Endodontzia | Ortodontzia ikusezina | Periodontzia | Kirurgia  
 +34 948 450 267 | +34 618 480 553 | clinicadentaliruritarubio.es



Ongi pasa bestak!

Leitzako bidea, 90 Eguzki Eder · T. 615 70 68 02  
eliarrietaeskola@gmail.com

# AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

**ONGI PASA BESTAK!**

## DENDA AUTOMATIKOA 24 ORDUZ IREKIA

ERREGAI ULTRAFILTRATUA  
(A GASOLIOA, SP95, B GASOLIOA  
ETA ADBLUE)

KUTXAZAIN AUTOMATIKOA

ARROPA GARBIGAILUA ETA  
LEHORGAILUA



**Ctra. N-121-A - Km 48,8 • DONEZTEBE**  
**T. 948 450 272 - 948 450 787**

Doneztebeko patroiairen eta santu garrantzitsuenetako baten omenez». Azkenik, 2024. urtean, hirugarren erraldoia plazaratzeko aukera izan zuten: «herriko mutiko baten ekimena aprobetxatuz, Peio Ttiki sortu zen». Eta hiru erraldoi horien bueltan taldea ere pixkanaka osatzen joan da: «Doneztebeko erraldoien konpartsa gaur egun, hamasei pertsonak osatzen dugu, gizonezkoek eta emakumezkoek».

### Ospakizunetan lekua

Herrian ospakizunik bada, ez dira urruti izaten erraldoien konpartsako kideak: «Besta ttikitian ateratzen gara eta bestetan, bezpera kenduta, gainontzeko egun guztietan bueltaxka bat ematen dugu». Ekitaldi batzuk «arrunt markatuak» daudela azaldu du: «udal ttikiari laguntzea, San Pedro Eguneko dantza edo Erreka Dantza Taldearen emanaldian parte hartzea, adibidez». Baina, besta giroa herri osora zabaltzea ere bada beraien ardura: «Herri guztia bisitatzen saiatzen gara, egun batzuetan alderdi batetik ibiliz, eta bertzeetan bertzetik». Helburua argi dute: «Herria alaitzea da gure asmoa eta, zaila bada ere, herritar guztiei Peio, Luzia eta Peio Ttiki ikusteko aukera ematea gustatzen zaigu». Erraldoiak dantzan hasten direnean, nekez begiratzen baita bertze aldera.

### Erraldoien topaketak

Bestetako egitarauaren baitan, ospakizunerako tarte berezia hartu du aurten erraldoien konpartsak: «70. urteurrena ospatzeko erraldoi topaketa antolatzea pentsatu dugu eta hortan gabilitza udalaren

laguntzarekin. Ekainak 27an izanen da, goizean zehar». Doneztebeko hiru erraldoiei, inguruko herrietakoak gehituko zaizkie: «30 erraldoitik gora elkartuko gara eta hurbiltzen diren haurrei eta helduei ikuskizun paregabera eskaini nahiko genieke. Bazkalondorako ere ekitaldi batzuk antolatzeke asmoa daukagu eta bertara nahi duen guztia gonbidatuta dago».

Etorriko diren erraldoietako batzuk, beraien herrian izan dute lehenago Doneztebekoen bisita: «Herri aunitzetan ibili izan da konpartsa: Bera, Lesaka, Sunbilla, Legasa, Narbarte, Oronoz, Elizondo, Berroeta, Eratsun, Gartzaron... eta Luzaide, Faltzes eta Villabonara ere joan gara». Azken urteetan erraldoien topaketak antolatzeke «ohitura handia» dago eta Doneztebeko Konpartsak ere jarri nahi du hor bere alea: «ahal dugun heinean, gure erraldoiak plazaratzea gustatzen zaigu. Aurtengoan Kataluniara joateko gonbidapena ere jaso dugu, eta hantxe izanen gara urrian».

### Erraldoiak barrenean

Erraldoien kalejira bat egiten denean, ematen den pauso bakoitza neurtu behar izaten da: «erraldoia garraiatzeak ez du dantza egitea bakarrik suposatzen. Tarte batzuetan, kalejiran goazenean, ezker eta eskuin mugitzen gara, ikuskizunera etorri diren guztiei gure hurbiltasuna erakusteko. Bertze batzuetan, dantza egitea tokatzen da». Horretarako, ikasi egin behar: «Astean behin elkartzeko ohitura daukagu entseguak egiteko, eta bestak hurbiltzen direnean,

# EDUARDO ZUBIKOA

arkitektoa 609384293



OBRA BERRIKO proiektuak  
BIRGAITZE- eta  
BERRITZE-proiektuak  
OBRA ZUZENDARITZA  
IGOGAILUA jartzeko proiektuak  
EEE/CEE eta IEE betearaztea  
Aholkularitza **URBANISTIKOA**

www.eduardozubikoa.com  
Parrokia 15, behea - DONEZTEBE | Irunlarrea 61, behea - IRUÑA








Konpartsako kideak eta hiru erraldoiak. UTZITAKOA

astean pare bat aldiz elkartzea hobe izaten da, dena ahalik eta hobekien lotzeko». Entsegu horietan erraldoiak txandakatzen dituzte: «Batzuek hauek sorbaldan dituztela dantzatzan duten bitartean, bertzeek erraldoi gabe entsegua egiten dute».

Behin ekitaldiaren eguna ailegatzan denean, arreta behar den tokian izatea da gakoa: «erraldoia sorbaldan hartu eta honen pisua bertzerik ez duzu sumatu behar, inguruko guztiaz atzenez». Bada, kontuan hartu beharreko bertze aldagai bat: «Hau-

**sare**  
akademia

**DBH ETA BATXILERGOA**

- MATEMATIKA  
(DBH-n fisika eta kimika aukerarekin)

LEHEN HEZKUNTZA  
- ERREFORTZU KLASEAK MATEMATIKETAN

Talde txikitan eta jarraipen pertsonalizatuarekin.  
2026-2027ko ikasturterako apuntatzeko epea zabalik.

**INFORMAZIO GEHIAGO:**

T. 615561458 (Nerea)

Emaila: akademiasare@gmail.com

Web orria: sites.google.com/view/sareakademia  
Doneztebe

**CASA**  
**SANTAMARIA**  
HOSTAL · JATETXEA

Ongi pasa  
bestak!



948 450 043 | Kale Nagusia 28, DONEZTEBE

**BIDASOA**  
GURPILAK - GASOLINDEGIAK  
1999. URTETIK

**GASOLIOA  
ETXERA**  
eramaten dugu

Continental

BIDASOA  
GURPILAK - GASOLINDEGIAK  
Gasol 1.559  
1.167



**PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIANTZAT  
ZERBITZU ANITZAK**

**Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak**

**24h-ko asistentziak errepideetan**



**IAT aurreko zerbitzua dohainik**

**Gasolindegia 24h irekita**



609 446 693 - 679 204 872

bidaso@neumaticosbidaso.es

[www.neumaticosbidaso.es](http://www.neumaticosbidaso.es)

**Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko**



Alkaiaga Industrialdea  
Ziobi Kalea 6  
31770 Lesaka (Nafarroa)  
948 625 663 - 636 293 125

Ongi pasa  
bestak!



Noain-Eskiroz Industrialdea  
Y Kalea 10  
31110 Noain (Nafarroa)  
948 312 239 - 679 204 872

  
**AINHOA  
ALTZUGUREN MITXELENA**  
 A B O K A T U A  
 Dibortzioak | Kontratuak | Arazo administratiboak  
 BERA | M. 630 972 189 | ainhoaaltzuguren@gmail.com

  
**Inzakardi**  
 Pinturak  
 - PINTURA LANAK OROKORREAN -  
 ongi pasa bestak!  
 Eduardo Oyarzabal Inzakardi, 10  
 m. 630 511 488 DONEZTEBE/SANTESTEBAN

  
**conselmu**  
 CONSTRUCCIONES  
 ELIZAGA MUGIKA SL  
  
 Etxebizitzen eraikuntzak | Teillatu berriztatzeak  
 Mota guztietako erreformak  
 T. 636 815 926 | conselmu@hotmail.com  
 www.construccioneselizagamugika.es

DONEZTEBEKO  
**AVIA**  
 GASOLINDEGIA  
**IBILGAILUEN  
GARBITOKI BERRIA**  
 Lantza bidezko garbiketa ur beroarekin  
 Koloretako aparra  
 Urberritze ona  
 Argizaria  
 Distira emaila  
 Galeria altuak  
  
 DONEZTEBE, Leitza bidea, 49 | 948 451 679

Ongi pasa bestak!  
  
**HOR-DAGO**  
 DANTZA ESKOLA  
 IRATZE RECIO  
 HELDUEN  
 TALDEAK ERE

  
**zrb.net**  
 informatika  
 ONGI PASA BESTAK!  
 Merkatarien kalea, 29  
 31740 DONEZTEBE  
 T. 948 451 752  
 M. 609 418 097  
 info@zarbo.net  
 www.zarbo.net

rrren ingurura hurbiltzen saiatzen gara, baina beti ez dugu erantzun berbera jasotzen. Irriz hartzen ez gaituztenekin, distantzia mantentzen jakin behar dugu».

**Etorkizuna**

Konpartsaren oraina eta etorkizuna burutan dituzte eta horregatik, jendea konpartsara erakartzeko eginahalak egiten ari dira: «hainbat ekimen antolatu ditugu haurren eta helduen artean interesa pizten saiatzeko. Adibide gisa, herriko eskolara bisita egin berri dugu eta bertako haur guztiek izan dute erraldoiak sorbaldan hartzeko aukera».

Helduak ez dituzte albo batera utzi eta azpimarratu dute proba egiteko aukera edonork duela, adin eta sexu mugarik gabe: «Badakigu, kanpotik ikusita, jende aunitzi gibelera botatzen diola dantzan ez jakiteak, baina hona etorri eta probatuko balute, ikusiko lukete errealtatea bertzelakoa dela». Izan ere, taldean ikasten dute erraldoiak eraman eta dantzarazten:



Herriko bestetan ia egunero aterako dira.

«Konpartsan sartzen den pertsona oro zerotik hasten da, eta bertzeen laguntzarekin ikasten du». Beraz, hortxe doa gonbidapena: «Nornahi da gai erraldoien konpartsan bere ekarpena egiteko. Interesa duen oro ongietorria izanen da».

  
**ONGI PASA BESTAK!**



**TELLETXEA**  
MUEBLES | ALTZARIAK

**Altzariak eta dekorazioa  
Sukaldeak  
Pareta armairuak  
Koltxoiak**

M. 687 95 03 76 | T. 948 450 258  
 Rosa Seminario, 12 | DONEZTEBE  
 www.mueblestelletxea.com

Gure dendan aurkitu ditzakezu...

Burdindegia  
Esku erreminta  
Erreminta Elektrikoa  
Lanerako jantziak  
Margoak eta barnizak  
Silikonak  
Hidrogarbigailuak  
Konpresoreak  
Lorezaintza  
Abeltzaintza  
Baratzea

...eta askoz gehiago!

 **Apezteguia Berria**  
ferretería - burdindegia

Leitzako Errepidea - Doneztebe

[www.apezteguiaberria.com](http://www.apezteguiaberria.com)

T: 948 450 994 - Fax: 948 450 882

**BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!**



**ARKITEKTOAK**

Bizitza berriak  
Zaharberritzeak  
Lokalen berrikuntzak  
Hostalaritzarako proiektuak  
Teilatu berritzeak

Efizientzia Energetikoa  
Isolamendurako aholkularitza  
Obra ttikien kudeaketa

T. 626 26 19 90

[www.apezteguiaelizalde.com](http://www.apezteguiaelizalde.com)





Zurgin lanak orokorrean

Aparan Industrialdea - 31740 DONEZTEBE

Tel. 669 939 057

mutuberriazurgindegia@hotmail.es

ongi pasa bestak!

# «Herriko gazteen arteko harremanak sustatzea da Burrunbaren asmoa eta herri izaera hori indartzea»

JANIRE IRIBARREN LIZARDI DONEZTEBEKO GAZTEA

**Eneritz Iraola** DONEZTEBE

Doneztebeko hogeita hiru urteko neska gaztea da Janire Iribarren Lizardi. Artista hitzak ongi definitzen duen horietakoa: «beti nabil argazkiak ateratzen eta sormena lantzen». Argazki kamera soinean duela mendira edo kosta aldera joaten da maiz: «naturarekin kontaktuan egotea ezinbertzekoa da niretzat eta argazkilaritzak gustuko dudan horren oroitzapen polit bat edukitzeko aukera ematen dit».

Badira, ordea, oroitzapenak memorian iltzatzeko bertzehamaika modu eta horregatik, Doneztebeko



Burrunbako kidea da Janire Iribarren Lizardi.

**DONEZTEBEKO BESTAK 2026**  
 ekainaren 26tik 30era  
 70 urte

**HERRITAR ETA BISTARI GUZTIOI, ERRESPECTUZ BESTA EGIN!**

Doneztebe/Santesteban  
 Udala  
 Zuzentzat lanaraz

**ERASO SEXISTARIK EZ!**

**aurreztu**  
 ur ihesak

Besta ederrak pasa!

Xanti Belarra Telletxea

**608 947 506**

Etxe barruko nahiz kanpoko sareetako ur ihesen bilatze lanak; ikerketak, detekzioak eta konponketak

[www.uraurreztu.eus](http://www.uraurreztu.eus)

**MENDAUR MOTOR**  
 T. Multimarca Especializado 4x4 - Opel - Suzuki  
 COMPRAVENTA - CHAPA - MECANICA - ELECTRICIDAD

**Mendaur Motor**  
 Leitza errepidea, 47 - Tel.: 948 45 03 33

bestetan «argazki kamera etxean» utziko duela aitortu du.

Doneztebeko Burrunba Gazte Taldeko kidea da Iribarren eta aspaldi hasi zituzten besten inguruko prestaketak: «ekaina hagitz agudo pasatzen da eta ohartzen garenerako bestak ate joka izaten ditugu». Ekainaren 28an ospatuko duten Gazte Eguna antolatzeaz arduratzen dira eta, horretaz gain, arratsero txosna ere irekitzen dute: «Urte osoan antolatzen ditugun ekintzetarako dirua lortzeko aukera ematen digu horrek».

### Galtzak bete lan

Urteko ekintzak zeintzuk diren galdetutakoan, agerian gelditu da galtzak bete lan izaten dutela: «Urtero guk antolatzen ditugu Besta Tikiak eta inauteetako ortzeguneko eta ortziraleko ekitaldiak. Gainera, Iruñera pilota partidaren bat ikustera joateko irteeraren bat antolatzeko ohitura ere badugu». Ekitaldi finko horiekin batera, jendearen proposamenak kontuan izan eta bertze hainbat ekintza ere

antolatzen dituzte, «mus txapelketa, talo jatea eta aurtengo Eguberrietan zerri baten zozketa ere egin dugu».

### Helburua

2008an sortu zuten Burrunba Gazte Taldea eta geroztik, jende aunitz ibili da bertan; «Duela lau urte sartu nintzen ni taldean eta denak boluntarioak gara». Talde anitza da, helburu baten bueltan elkartu dena: «Herriko gazteen arteko harremanak sustatzea da asmoa eta herri izaera hori indartzea».

Inguruko herriekin konparatuta, herri handia da Doneztebe eta horrek gazteen arteko harremanetan eragina duela ikusi dute: «Herri txikietan errazagoa izaten da adin desberdinetako jendea elkarrekin ibiltzea. Gurean kuadrillak banatuta dago dena eta kosta egiten da, batzuetan, hori alde batera uztea».

Burrunbak antolatzen dituen ekintzekin, kuadrillen arteko muga zurrun horiek hautsi nahi dituzte. Eta ez hori bakarrik, Doneztebe Malerrekako erdigune bezala



Gosariak  
bazkariak  
eta afariak

ongi pasa bestak!

T. 948 450 443 - Leitzako errep., 84 - DONEZTEBE



Merkatarien karrika, 28  
31740 DONEZTEBE

**EDERKI**  
tailerra



Latigillo hidraulikoen  
moldaketa  
**PEUGEOT** markan  
espezialistak



ONGI PASA  
BESTAK!

T. 948 450 525  
DONEZTEBE | Leitzako bidea, 57



SUKALDEAK  
KOMUNAK

Etzetresnak | Pareta-armairuak  
Sukalde eta bainugelako altzariak

ONGI PASA BESTAK!

T. 948 450 925 | M. 677 525 324  
Amezitia zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE



# DISEÑA BY LEIRE

LEIRE TELLECHEA

**Tokiko negozioei** haien irudi digitala hobetzen laguntzen diet



- Sare sozialak
- Diseinu grafikoa
- Reels eta ikus-entzunezko edukia
- AA negozioetarako



@soyleire.digital

"Eskaneatu eta ezagutu nire lana"



Karrikako giroa nabarmendu du Iribarrenek. ALICIA DEL CASTILLO

# Mendiburu aziendak · tratantea

*Ongi pasa  
herriko bestak!*



608 676 221  
948 450 084  
DONEZTEBE

ulertuta, nabarmendu du inguruko herrietako gazteek ere «tokia» dutela antolatzen dituzten ekintzetan. Horregatik, azpimarratu du: «Doneztebe eta inguruko edozein haurren, gazteren eta helduen proposamenetara idekiak» daudela.

Herriko bestak ailegatzen direnean ere, herri giro horren bila aritzen da Iribarren. Horregatik, «eguneko besta» nahiago izaten duela aipatu du: «Giro politagoa izaten da. Herriko jendea elkarrekin, gazteak eta helduak. Asko gustatzen zait bazkarian, poteoan... herri guztia elkartu eta sortzen den giroa». Hari horri tiraka, «kaleko giro hori pizten duten elektrotzarangak, batukadak... ezinbertzekoak» iruditzen zaizkio.

Besta eta lana uztartu beharko ditu aurtengoan, «nahi bertze ezin

izanen dugu atera». Baina batzuetan loari orduak kenduz eta bertzeetan etxean geldituz, bien arteko oreka topatzeko saiakera egiteko prest dagoela dio irriz.

Egitaraua esku artean hartuta, badira inoiz galtzen ez dituen hainbat hitzordu: «Bertso saioa asko maite dut eta Erreka dantza taldeko kidea ere banaizenez, bestetan eskaintzen dugun dantza emanaldia ere bestetako ekitaldi berezietako bat dela erranen nuke».

Dantzarako duen afizio horregatik, akaso, erromeria giroa gustuko duela aipatu du eta gazteei plaza ingurura gerturatzeko deia ere egin die: «Gaur egungo gazteak gehiago egoten dira tabernan. Nik animatuko nituzke plazara etortzera eta bertan egiten diren ekitaldietan parte hartzera».



ONGI PASA BESTETANI!



8 urtetik aurrera. HAUR · GAZTE · HELDUAK  
Hasiera mailatik: A1 - A2 - B1 - B2 - C1 - C2

1991z geroztik Cambridgerako azterketa ofizialak prestatzen ditugu eta hagitz emaitza onekin. Itzulpenak ere egiten ditugu.

T. 626 908 076 · angiacademy@gmail.com  
Elizagibela, 7 behea · 31740 DONEZTEBE



# Sampi Aragón S.L.

Mekanika · Elektrizitatea · Txapa · Pintura



T. 948 450 354 | DONEZTEBE | sampiaragon@sampiaragon.com

**SOROPIL  
ARTIFIZIALA**

**IGERILEKUAK**

**HARRIA**

**BIG MAT KLOROA**  
5 KG | 200 g-ko tabletak

**24, 95 €** ↑



**SUBSTRATU  
UNIBERTSALA 50L**

**6, 95 €** ↓

**ITXITURAK**

**PINTURA**

**BARBAKOAK**

**BIGMAT SESIMBRA  
OBRAKO BARBAKOA**  
Ikatza eta egurrerako.  
Hormigoi grisa,  
adreilu horia eta  
adreilu islatzailekoa.  
Su-ontzia barne.

5394720

**435, 95 €**



BARBAKOA BIG MAT  
SINTRA PARRILAREKIN

**169,95€**

**MOSKITERAK**

**ETA...  
BURDINDEGIA  
PLADURRA  
ALOKAIRUAK  
ITURGINTZA  
ELEKTRIZITATEA  
LOREZAITZA  
MAKINAK  
AZULEJOAK**

*Ongi pasa bestak!*

**BigMat**  
**Mendixuri**  
*Zure denda!*